

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea jarduera sailkaturako lizentzia**

6\_860k udal lizentzia eskatu zuen Erroetako 5 poligonoko 222 lurzatian behien abeltzaintza jarduera egiteko (110,85 AzLU). Hartara, behar den espedientea izapidetzen da aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

Sustatzaileari eskatutako eta hark aurkeztutako agiriek garrantzia nahikoa dute berriro jarri behar izateko jendaurrean.

Horregatik, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 58.1 eta 58.2 artikuluetan xedatutakoa betez, berriro jartzen da jendaurrean, ezarri nahi den jardueraren eraginpean daudela uste dutenek espedientea aztertu eta egoki iritzitako oharrak aurkez ditzaten hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Espedientea udal idazkaritzan egongo da interesa dutenen eskura.

Maeztu, 2020ko maiatzaren 28a

*Alkatea*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**